

Patxi Bisquert

OTAÑOEN ITZALA



ZINEMA LURRETIK IRTENDA

“Oraindik bere bizitzaren bilatze horretan aurrera doan tipo bat naiz, gure herri hau izugarri maite duena, eta baita Galizia ere, hangoak baitira nire semeak. Zinemaren munduan, Tasio moduan naiz ezaguna, batez ere hemen, Nafarroan. 37 urte pasa dira pelikula egin genuenetik, eta oraindik ere halako arrakasta eta oihartzuna izatea ona da. Pelikula gehiago ere egin ditut, azkenekoa *Oreina*. Neronek zuzenduak ere izan dira, Galizian egin nituen lan batzuk. Gustatzen zait zinema egitea, eta batez ere besteen hitzak erabiltzen ditut horretarako, gustatzen zait testu poetikoak erabiltzea. Eta gustatzen zaidan zinema oso lotuta dago lurrari, eta askatasunari”.

“Gaur egun *Tasio* bezalako pelikula bat ez zen aurrera aterako”

Eginahal handiz ari da Patxi Bisquert (Zizurkil, Gipuzkoa, 1952) aktore eta zinemagilea azken urteetan *Ombuaren itzala* proiektua aurrera atera nahian. Pedro Mari Otaño bertsolariaren bizitza pantailaratu nahi du, eta auzolanean jaso nahi luke horretarako finantzazioa. Gauzak ongi, uda honetan hasiko dira filma errodutzen, Argentinan. Herriz herri dabil orain, egitasmoa aurkezten, eta aurretiaz salgai jarritako 30.000 sarrerak erosteko gonbita egiten.

✍ ANDER PEREZ ARGOTE 📷 JOSU SANTESTEBAN

Zer du Pedro Mari Otañok pelikula bateko protagonista izateko?

Oso pertsona interesgarria da. Alde batetik, bere garaiko bertsolarien artean bakana zelako. Orduko bertsolari gehienak karlistak ziren, eta hau liberala, bitxo arraro bat. Gizon aditua zen, jantzia, kulturalki sen handikoa. Eta aitzindaria ere izan zen; eztarri txarra zuenez, bertsopaperak erabili zituen, eta horrek izugarrizko bultzada eman zion bertsogintzari. Ordura arte bertsoak bota ahala haizeak eramaten zituen. Pertsona poliedrikoa da, ertz askokoa. Garai hartako pertsonaia interesgarrienen artean kokatuko nuke: Otañoren itzala 1950-60 hamarkadetan Oteizak zuenarekin konparatzen dut.

Zizurkildarra izateaz aparte...

[Barrez] Noski, herri hori asko maite dut, eta ez bakarrik han sortua naizelako. Gazte-gaztetik hasi ginen gu Otañoren koplak kantari. Nik Zizurkilen bost urte eman nituen, baina gero Hondarribiko Jaizubian egon gi-

nen bizitzen, amaren lehengusuekin. Edozein jai ospatzen zela, izan enterrua, bataioa, sagar uzta edo meta bukatzea, aitzakia ona zen bertsoan hasteko. Eta eztarria berotzeko Otañoren koplekin hasten ziren, zirikatzeko. Guztiak ezagutzen nituen garai hartan. Morriña bizi dut, gaur oso gutxi direlako Otañoren koplak ezagutzen dituzten gazteak.

Proiektu pertsonaltzat duzu?

Hasiera-hasieratik izan da oso pertsonala. Noski, bidean inplikatu dut zenbait jende, batez ere, niretzako inportanteena, Koldo Izagirre. Oso testu ederrak idatzi dizkit. Kronologia mantendu nahi zuenez, Otañoren bilakaez hitz egiteko, nik neuk egin dut egokitzapena. Gero, bada beste gauza bat: halako pertsonaia ospetsuen inguruan ibili diren emakumeak oso sufrituak izan dira; orain asko aipatzen da Angela Kerexeta, ze gorriak pasa zituen Iparragirrekin. Madalenek [Maria Magdalena Alberdi] ere halako zerbait biziko zuen. Genero ikuspuntutik halako errietaren bat falta zen, ukitu



"Ideia eta bide berriak jorratu beharra sumatzen dut, berpizkunde garaian sartu beharrean gaude ez badugu herri gisa atzean geratu nahi".

batzuk. Horretan Leire Aranburuk lagundu dit, eta oso pozik nago.

Otañoren figura bezain interesgarria da bere garaia. Zergatik?

Garai oso interesgarria da, Euskal Herria, foruen galerarekin batera, aztoratua gelditu zelako, lur jota, eta krisi ekonomiko ikaragarrian. Baina aldi berean, gauzak nola diren, berpizkunde urteak ere izan ziren, orduan hasi zirelako ideia berriak sortzen, sozialismoa indartzen, eta aber-tzaletasun berria. Gure gidoian, Txirritak esaten dio Otañori: "Gauza berriak asmatu beharra diagu". Otañoren idazlanek kronologia bat eskaintzen digute garai hura aztertzeko.

Bere bizitzako azken bi hamarkadak kontatuko dituzue filmean. Zergatik?

Horiek izan ziren bere urterik emankorrenak. Gaixorik itzultzen da Argentinatik, halako herrimina duelako. Bueltan ezkontzen da, eta hasten da familia osatzen. Suspertzearen hamarkadak dira. Gaur egun antzeko ziklo batean gaude: diktaduran baino denbora gehiago daramagu autonomiarekin, baina aurrera-

pauso txikiak eman ditu herri honek, eta azken urteetan beharbada atzerapausoak ematen ari gara. Ideia eta bide berriak jorratu beharra sumatzen dut, berpizkunde garaian sartu beharrean gaude ez badugu herri gisa atzean geratu nahi. Otañoren garaia, 1950-60 hamarkadak eta gaur egungo egoerak konparatzen ditut, 60 urtero halako zikloak emango balira bezala. Garai hartan Amerikak egitera behartuak zeuden gure gazteak, eta gaur egun ere begira nola dauden.

750.000 euro lortu nahi dituzue proiekturako, eta auzolanean lortzeko erronka jarri duzue. Zergatik?

Gaurko ekoiztetxe eta telebista plataforma handiei ez zaie halako istoriorik interesatzen. Ez badago biolentziaz beterik, edo sexuz, edo ez bada ETArekin kontakizun errebisionista horietako bat... Lehenengo asteburuan ez baduzu kristoren arrakasta leihatilan, pikutara. Gaur egun Tasio bezalako pelikula bat ez zen aurrera aterako, zakarrontzira botako lukete segituan. Autore zinema deitzen dugun horrek gero eta ate gutxiago ditu

zabalik. Horregatik jorratu behar ditugu beste bide batzuk euskal zinema ikusi ahal izateko. Nire azken pelikula, Koldo Almandozen Oreina, 45 lekutan ikusi da, eta 25.000 ikusle izan zituen, hori ez da ezer. Eta hori bezala beste hainbeste, e! Handia izan da gehien ikusi den euskarazko filma, baina estatu osoan estreinatuta ere 150.000 ikusle izan ditu, 4 milioi euroko aurrekontuarekin.

Eta beraz, nola egin?

Espero dugu film hau, gutxienez, Euskal Herriko ehun lekutan ikustea. Gainera, belaunaldi berriei bideratua denez, elkarlanean ari gara Ikastolen eta Eskola Publikoen sarearekin, eta ikasleek dohainik ikusiko dute. Herrigintza egin nahi dut, fruituak herriari itzuli, eta irits daitezela gure gazteak Otañorengana. Eskatzen duguna da gurasoek lagundu dezatela sarrrerak erosten. 30.000 jarri ditugu salgai, eta espero dugu denak saltzea. Ikastolekin bakarrik 65.000 ikusle izango dira, eta sare publikoan hori bikoiztuko dugu. 200.000 pertsona baino gehiagok ikusiko dute. Euskal zinema beste eremuetara ere zabaltzea da bilatzen duguna. ●